

Baztanga

Joxean Agirre

Iloba bat Zegama-Aizkorri lasterketa prestatzen ari da bizi den bost solairuko etxean eskailerak igo eta jaitsi. Lastima ez dela Atotxako Dorrean bizi, bestela Jorneten markak hautsiko zituen. Neu ere ibili naiz etxepera jaitsi eta korrika itzuli batzuk egiten, baina, jarrera hori zilegitasunaren muga zegoela-eta, etxeko emakumeek zumba saio bat jartzen didate Youtuben eta, hainbeste serie egiten ditut bularrak goititu eta ipurmasailak gotortzeko, non beldur naizen itxialditik ez ote naizen trans baten itxurarekin aterako.

Egoera ez da eroso eta abaildurak josten nauenean Xenpelarren garaiko itxialdiekin gogoratzen naiz. XIX. mendeko bertsolaritzaren gailurra izan zen, “Ia guriak egin du” eta “Iparragirre abila dela” bertso sorten egilea.

Errenteriako Fabrika Handian egiten zuen lan eta, hirugarren alabak 3 urte zituela, emaztea baztanga harrapatuta hil zen 1869ko urriaren 25ean. Xenpelar bera ere kutsatu eta hilabete eta erdi geroago zendu zen, 34 urte zituela.

Bien bitartean, arreba Maria Luisa, haurdun zegoela, alaba txiki bat senarrarekin utzi eta anaia eta ilobatxoak zaintzera sartu zen kutsatutako etxe horretara, bere bizia eta sabelean zermanarena arrisku gorrian jarritz. Xenpelar hil zen egun berean jaio zen Daniela, Maria Luisaren alabatxoa, baina hamar egun bakarrik egin zituen bizirik, abenduaren 17an hil baitzen umea eta biharamunean ama, biak ere gaitz berarekin.

Mirariz bezala, bertsolariaren hiru alabak atera ziren bizirik. Hiru hilabete-

ko epean baztangak 29 lagun eraman zituen Errenterian.

Kontakizun lazgarri hau gaztetan irakurri genuenoi arrebaren erabakiak txunditu gintuen eta beste irudi batek ere bai: itxita zeuden etxeetatik tarteka leihotik soka bat ateratzen zuten eta hari lotuta saski bat jakiak eta bestelakoak jaso zituzten.

Xenpelar begikoa izan dute euskal artistek. Antonio Valverde Ayaldek margolan bat utzi zigun eta Oteizak bi irudi. Horietako batek Giacomettirena dirudi eta gizon segail eta okertu bat erakusten du. Bertsozale Elkartek urteetan eman izan die sari moduan irudi hori txapeldunei. Andoni Egañak lau bat izango ditu ganbaran. Egunotan, eskue-tan Xenpelar bana hartuta, zumba edo pesak egiten irudikatzen dut hura ere. •

Malen

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Zain gauden, eta prest ere bai ustez. Joan den astetik datorren hilaren azken aldera bitartean, heuk erabakitzen dunanean etorriko omen haiz. Ziurra dun Covid-19 delakoak eragindako alarma egoerak irauten duen bitartean agertuko haizela gure artean.

Egia esan, hire etorreraren zain egoteko azken txanparekin harrapatu gaitin berrogeialdi, konfinamendu edo dena delako egoera arraro honek. Eta bizi garen inguruneak eta etorrerarako prestaketek lagunduta, alarma egoerak gudan izan zezakeen eragina ez dela horren-

bestekoa uste dinat, entretenituta gauzkan. Alarmaren balizko luzapenak, berriz, hire hazierako lehen egunekin egingo din bat, eta etxetik urrundu gabe egoteko beste arrazoi batzuk izango diti-nagu guk.

Etxe inguruan eta jendez inguratu gabe egoteak lagunduko zigun hi babestuta mantentzen gizarte kapitalista, matxista eta prekario honetatik. Hori bai, koskortzen hoan eran, hire aita eta biok ahaleginduko gaitun azaltzen: jaio hintzen urtean birus bat mundu mailako pandemia izatera iritsi zela, agintari-ek salbuespenezko neurriak ezarri zituzte-

la, eta, horien ondorioz, gertuko askok hi ezagutzeko itxaron behar izan zutela.

Askok eta askok, gehiengoaren bizitzari eutsi ordez, ekoizpen ekonomikoa lehenetsi zutela. Osasun arloko profesionalak beren burua zaintzeko material faltan zeuden bitartean, biziraupenerako beharrezkoak ez ziren lantegiak irekita mantentzeko, langileentzako segurtasun materiala ziurtatu zutela. Baina horren guztiaren gainetik, herri honek txarrenari onena ateratzen diola eta aurrrera egin genuela. Hik eta hire belau-naldikoek ere halatsu egiteko ikas deza-zuen •